



FORU DEKRETUA

Gastu arrunta eta karbono dioxido isuriak gutxituko dituzten tokiko kanpo argiteriaren sektoreko ekintzetarako diru-laguntzak arautzeko oinarriak.

Abenduaren 13koa, Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 38/2013 FORU ARAUAK sartu zuen Finantza Iraunkortasunako horrela definitzen den printzipioa: aldiari aldiko eta etorkizuneko gastu konpromisoak finantzatzeko ahalbidea, defizitaren, zor publikoaren eta merkataritza zorren berantiararen mugen barruan, indarreko araudian, Europako arautegian eta Arauan bertan ezarritakoarekin bat etorri.

Horrela, dirulaguntzen xede nagusia, zeinen oinarri arautzaileak foru dekretu honek onesten baititu, da lortzea gure lurraldean argiteriaren eskumena benetan egikaritzen duten administrazio publikoek, hau da, udalerrri eta kontzejuek, ahalik eta energia eraginkortasun handiena lor dezaten, ez bakarrik zerbitzua bere horretan ematean, ezpada zerbitzu horren benetako kostuari eta ingurumen jasangarritasunari dagokienez, beharrezkoa baita elektrizitate kontsumoa eta horren ondoriozko emisioak jaitea.

Efizientzia energetikoa ere hartzen da kontuan, zeren kontsumo elektrikoa murrizketak ingurugiroko iraunkortasunari laguntzen dio.

Kontuan hartuta beharrezkoa dela oinarri argi eta zehatzak ezartzea dirulaguntza horiek eskuratzeko, eta oinarri horiek objektibotasun, lehia eta publikitatearen printzipioak bermatu behar dituztela, eta, halaber, aplikatuz 11/2016 Legeak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentzienak, eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, ezarritakoa, hona hemen tokian tokiko kanpoko argiteriaren sektorean karbono dioxido emisioak murrizten dituzten ekintzetarako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak.

Horregatik, diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

XEDATZEN DUT

Onespena ematea tokian tokiko kanpoko argiteriaren sektorean gastu arrunta eta karbono dioxido emisioak murrizten dituzten ekintzetarako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriari. Aipatutako oinarriak dekretu honen eranskin gisa jaso dira.



ERANSKINA

Gastu arrunta eta karbono dioxido isuriak gutxituko dituzten tokiko kanpo argiteriaren sektoreko ekintzetarako diru-laguntzak arautzeko oinarriak.

1. XEDEA.

Laguntza-programa honen xedea da tokiko kanpo argiteriaren sektorean ekintzak bultzatu eta sustatzea. Helburuak bi dira:

1 Gastu arrunta murriztea eta modu honetan oreka ekonomikoa hobetzea, aurrezki garbia ere hobetuz.

2 Karbono dioxido isuriak gutxitzeaz.

Bi helburuak, energia aurrezteko eta efizientzia ekonomikoa, finantziera eta energetikoaren aldeko proiektuak gauzatzuz, 2012/27/UE Zuzentarauak ezarritako energia-kontsumoa murrizteko helburuak betetzen laguntzeko, oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera.

2. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUKETAK.

Energia elektrikoaren gastu arrunta eta kontsumoa murriztea ekarriko dituzten kanpo argi publikoetan jarduketak eta eguzki argiztapen ekipamenduak; agiri bidez frogatu behar dira, eta kanpoko argi instalazioen energia efizientziaren araudian eta beraren jarraibide tekniko osagarrietan (1890/2008 ED) ezarritako preskripzioak bete behar dituzte (ezinbestekoa da betetzen direla adieraztea).

Instalazio berriaren kalifikazio energetikoa A edo B izango da, eta araututako iluminazio, kalitate eta konfort eskakizunak bete beharko ditu.

Argiztapenaren argi-guneen birgaiketak LED teknologia erabiltzea aurreikusten duenean, kontuan hartu beharko da «Kanpo-argiztapenean LED teknologia duten argiak jartzeko eska daitezkeen betekizun teknikoak» dokumentuan ezartzen dena. IDAEk eta Espainiako Argiztapen Batzordeak (CEI) egin zuten dokumentu hori.

LED teknologia duten iragarki argisuek argia gutxitzeko gailu bat edukiko dute, gaueko orduetarako. Programa honen bidez lortutako aurrezpena 41/1989, uztailaren 19koa, Foru Arauaren, Toki ogasunak, 53 artikulua araberak kalkulatu da.

Programa honen bidez lortutako aurrezpen energetikoa 2102/27/EB Zuzentarauaren V. eranskinean adierazitako kalkulu-metodologiari jarraituz kalkulatu da.

Deialdiak ondorengo hauek edukiko ditu:

- a. Oinarri arautzaileak ezarri dituen eta xedapen hori ALHAOko zein aldizkari ofizialetan argitaratu den.
- b. Aurrekontuko zeintzuk kredituri egotziko zaien diru-laguntza, eta zein den deialdiko diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa, guztira, kreditu erabilgarrien barruan, eta zein den diru-laguntzaren zenbateko estimatua, halakorik bada.
- c. Diru-laguntza ematearen xedea, baldintzak eta helburua.



- d. Diru-laguntza eskatzeko baldintzak eta horiek frogatzeko modua.
- e. Prozedura instruitzeko eta ebazteko eskumena duten organoak.
- f. Eskaerak aurkezteko epea eta modua.
- g. Ebazteko eta jakinarazteko epea.
- h. Eskaerari erantsi beharreko agiriak eta informazioak.
- i. Kasua bada, eskaerak berriz formulatzeko aukera, diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 27. artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoaren Diru-laguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauaren 25. artikuluan xedatutakoari jarraituz.
- j. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen ote duen, eta, horrela ez bada, zein organori aurkeztu behar zaion gora jotzeko errekurtsua.
- k. Jakinarazi edo argitaratzeko bidea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikulua eta ondorengoek ezarritakoarekin bat etorritik.

3. AUKERA DAITEZKEEN INBERTSIOAK ETA GASTUAK, ETA BALDINTZA GEHIGARRIAK.

1. Efizientzia energetikoa, ekonomikoa eta finantziaria hobetzeko beharrezko diren, eta eskatzailearen eta diru-laguntzaren onuradunaren aldetik ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeko egiten diren inbertsioak, horien alde egindako faktura eta eskatzaile eta onuradun horrek hornitzaileari egindako ordainketa-egiaztagiriaren bidez justifika daitezkeenak, bakarrik izango dira aukeragarriak eta, hortaz, Programaren kontura bakarrik finantzatu ahalko dira. Beraz, gastu propioak (langileak, funtzionamendua edo gastu orokorrak) ez dira aukeratu ahalko. Aukeragarria eta, hortaz, finantzaragarria izango da jasandako BEZa, berreskuratu edo konpentsatu ezin bada, betiere.
2. Ondorio horietarako, aukera daitezkeen gastuak izango dira Programa honen helburu energetikoak eta ekonomikoak lortzeko beharrezko direnak; ondorengo kontzeptu hauek har ditzakete barruan, besteak beste: teknikari eskudunak jarduketekin erlazionatuta egindako proiektu teknikoak, lanaren zuzendaritza fakultatiboaren kostuak, jarduketarekin lotutako obra zibilaren exekuzio kostuak eta instalazioen muntatzei dagozkienak; beharrezko ekipa, material eta instalazio osagarriak. Lizentziak, tasak, zergak edo tributuak ez dira sartuko.
3. Ingeniaritzako, obra zibileko eta muntaketan gastuen baturaren zenbatekoa ezingo da izan argiteria ezartzeko erositako gailu eta ekipoen aurrekontua baino handiagoa.
4. Diruz lagundu ahal diren gastuak izango dira, soilik, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaera daukatena eta behar-beharrezkoak direnak, eta BEZa.
5. Oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzak bateragarriak dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publikoek zein erakunde pribatuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) ematen dituzten diru-laguntzekin, laguntzekin, sarrerekin eta baliabideekin.
6. Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da izango, inolaz ere, bakarka hartuta edo beste diru-laguntza eta diru-sarrerak batuta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.
7. Erakunde onuradunek diruz lagundutako jarduketak behar bezala eta erabat burutzeko behar diren izapide guztiak egin behar dituzte eta behar diren baimen guztiak lortu behar dituzte, lanak hasten direnetik behin betiko jaso arte.



8. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. artikulua arabera, ondokoak dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduketara gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak: tratua berdina; aukera-berdintasuna; dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea; genero-ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea, eta koordinazioa eta lankidetzak.

Diruz lagundutako jarduketara gauzatzeko kontratu administratiboak egiten direnean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 20. artikulua aplikatuko da. Beraz: kontratua betetzeko baldintzen artean esleipendunak izango duen betebeharrak jasoko da: obra egin edo zerbitzua ematerakoan, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatzea; hori guztia kontratuen inguruko legeen arabera eta, betiere, organo eskudunak ezarri badu kontratazio mota edo ezaugarri horri neurri hori aplikatzea dagokiola.

4. BALIABIDE EKONOMIKOAK.

Deialdi egokiak oinarri hauen bidez deitutako diru laguntzetarako gehieneko zenbateko osoa finkatuko du, baita diru zenbateko horiek egotziko zaizkien aurrekontuko partidak ere.

5. ERAKUNDE ONURADUNAK.

Diru-laguntzen erakunde onuradun izan ahalko dira argiteria publikoko zerbitzua ematen duten Arabako Lurralde Historikoko udalerriak eta kontzejuak.

Ez dira erakunde onuradun izango azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzenak, IV. tituluan adierazitako arau-hausteren bat dela-eta zehatu direnak, bai eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoak, jasotako kasuetan sartuta daudenak ere.

Deialdien aurrekontuaren jatorria dela-eta, laguntza-lerro hauek edukitzeko, tokiko erakundeak ez dira Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko 2018-2019 Programaren onuradun izango.

6. EMATE PROZEDURA. ESKAERAK BALORATZEKO ETA DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA.

Diru-laguntza hauek lehia askean emango dira.

Diruz lagundu daitezkeen gehieneko ehunekoa jardueraren kostuaren arabera kalkulatu da. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua gehi BEZa da jardueraren kostua.

Onuradunak ebazpenaren jakinarazpena jasotzen duenetik 10 egun balioudunetan diru-laguntzari idatziz uko egiten ez badiu, ebazpenean ezarritakoa onartu duela pentsatuko da.

Hornidura agortu ondoren diru-laguntzarik gabe geratzen diren eskaerak poltsa batean sartuko dira puntuazioaren arabera hurrenkeran. Eskatzaile hauek diru-laguntza jasoko dute hasieran banatutako funtsetako batzuk erabiltzen ez badira, hau da, onuradunen batek bere diru-laguntzari uko eginez gero edo behar bezala frogatzen ez badu ezarri bezala erabili duela.



7. ORDAINKETA. ONURADUNEK NOLA ETA ZER EPEALDITAN FROGATU BEHAR DUTEN DIRU-LAGUNTZA EZARRITAKO XEDERAKO ERABILI DUTELA.

Diru-laguntza bat ordaindu baino lehen, haren xede den jarduera egin dela justifikatu behar da. Diru-laguntza ordaintzeko, deialdian aipatzen den dokumentazioa aurkeztu behar da. Kasuan kasuko deialdian ezarriko da hura aurkezteko gehienezko epea.

Justifikatu beharreko aurrerakinak egiteko aukera ematen da, foru araudian ezarritakoarekin bat etorri; horrela, erakunde onuradunek ordainketa bi fasetan justifikatu ahalko dute. Kasu honetan, lehenengo fase batean diru laguntzak estaltzen ez duen jarduketaren kostuaren zatia justifikatuko dute, eta Arabako Foru Aldundiak diru laguntza justifikatu beharreko aurrerakin kontzeptuean ordainduko du. Erakunde onuradunak gainerakoaren ordainketaren ziurtagiria aurkeztu beharko du hilabete bateko epean, diru-laguntzaren zenbatekoa jasotzen duenetik zenbatuta.

Honen bidez justifikatuko da:

- a) Jarduerak egin izana justifikatzen duen memoria, eskaeran aurkeztutako aurrekontu-partidak diru-laguntzaren xede den inbertsioa egiteko hauta daitekeen kostutzat eta egintzat dituen, benetako gauzatzearekin alderatuta.
- b) Fakturen kopiak eta dagozkien banku-ordainketen egiaztagiriak.

8. BABESLETZA.

Diru-laguntza jaso duen jarduera dela-eta egiten diren argitalpenetan, liburuxketan edo bestelako publizitate modu guztietan Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Sailak emandako diru laguntzaren berriazko aipamena egin behar da. Gainera, hizkuntza erabilera egokia ziurtatuko da, genero-ikuspegiari dagokionez, eta mezu eta kanal egokiak erabiliko dira informazioa berdin-berdin hel dakien gizonei eta emakumeei.

9. DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEA.

Jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira, Arabako Lurralde Historikoaren Diru-laguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako kasuetan.

Onartutako diru-laguntzaren kontura jasotako zenbatekoen itzulketaren zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da eta haren kobrantza 53/1992 Foru Arauak II. tituluko I. kapituluaren aurrekusten duenarekin bat etorri egingo da (53/92 Foru Araua, abenduaren 18koa, ekonomia eta aurrekontu araubideari buruzkoa).

Ondoko kasuetan oinarriak ez dira betetzen:

- a) Diru-laguntza justifikatzeko betebeharra ez betetzea.
- b) Diru-laguntza horretarako eskakizunak bete jabe jasotzea.
- c) Diru-laguntza helburu baterako eskatu eta horretarako ez erabiltzea.
- d) Onuradunak ez betetzea diru laguntza jasotzeagatik jarritako baldintzak.
- e) Kontrol edo egiaztatze jarduerak oztopatzea edo galaraztea.



- f) Jarduera burutzeko behar den baino diru gehiago jasotzea. Kasu honetan, jardueraren kostuaren gainetik eskuratutako soberakina itzuli beharko da, bidezko berandutze interesak gehituta.
- g) Xede bererako beste diru laguntzaren bat jaso dela ez aitortzea.

10. EGIAZTAPENA.

Deialdi honen garapenerako bidezkotzat jotzen diren ebazpenak hartuko ditu Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saileko diputatua eta diputatu nagusiordeak, diru-laguntza tramitatzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta ekintzak burutu ahal izango ditu erakunde onuradunek emandako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko.

Horretarako, erakunde onuradunek konpromisoa hartzen dute beraiek egindako jarduerekin loturik dauden eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Sailak eskatzen dizkien datu eta dokumentu guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste erakundeek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

11. ERANTZUKIZUNAK.

Erakunde onuradunek beren gain hartzen dituzte programa edo jarduera egitetik sor litezkeen erantzukizunak, bai eta hura garatzeko indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen baimenak eskatzea ere.

12. ALDAKETAK.

Onartutako diru-laguntza berriro aztertuko da, gastuaren finantzabidea zein den eta laguntza edo beste erakundeen diru-sarrera batzuen ekarpen osagarriak zenbatekoak diren jakin ondoren. Horrelakoetan, hauxe izango da diru-laguntzaren behin betiko gehieneko zenbatekoa: diruz lagundutako ekintzaren edo jardueren diru-sarreraren eta gastuen arteko azken likidazioaren ondoriozko defizita.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, edo bestelako entitate publiko zein pribatutatik beste laguntzarik jaso bada, laguntza emateko ebazpena aldatuko da, eta horren zati bat itzuliko da. Diru-laguntza onartu ondoren, diru-laguntza ematea arrazoitu zuten zirkunstantziak hori aldatzea ekar badezakete, onuradunak arrazoituta, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saileko diputatua eta diputatu nagusiordeak aldatu ahaliko du hori, dagokion Foru Arauaren bidez.

13. INTERPRETAZIOA.

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortzen diren zalantzak Aldundi honen Lurralde Oreken Zuzendaritzak ebatziko ditu.

14. ERREKURTSOAK.

Oinarri hauei eta horietatik sortzen diren administrazio egintza guztiei aurka egin ahal izango zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritako kasuetan eta moduan.



15. ARAUDI APLIKAGARRIA.

Oinarri hauetan xedatu ez den edozertarako, honako arau hauek aplikatuko dira: 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren diru-laguntzei buruzkoa; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko 38/2003 Legea Orokorra, diru-laguntzena, onartzen duena; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu araubide ekonomikoarena, indarrean dagoen aurrekontu antolamendua; urriaren 1eko 39/2015, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

16. INDARREAN SARTZEA.

Oinarri hauek ALHAOn argitaratuko dira eta argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.